



## XXXXX-(E)KO UDALARI EGINDAKO INFORMAZIO ESKAERA BAT DELA ETA, UDAL HORREK EGINDAKO KONTSULTA BATEN GAINEKO IRIZPENA.

### AURREKARIAK

**LEHENENGO:** 2011ko martxoaren 10ean XXXXX-(e)ko Udaleko alkateak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

**BIGARREN:** Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

*“2011ko martxoaren 1ean XXXXX-(e)ko Udalean XXXXX jaunak aurkeztutako datu pertsonalen eskaera bat jaso genuen (286 sarrera-erregistro zenbakia eta 2011-03-11ko data).*

*Eskatutako datu pertsonalak Udalaren artxiboetan daude eta gainontzeko gorabehera eta errekerimenduak honekin batera helarazi dugun jatorrizko idazkiaren kopian daude adierazita.*

*Beraz, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ez urratzeko, ondoko KONTSULTA egiten dugu:*

*Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat dator Udalak eskaera idazkiak eskatutako datu pertsonalak ematea, idazkian azaldutako helburua kontuan hartuta?”*

**HIRUGARREN:** Kontsulta-idazkiari atxikita datu pertsonalen eskaera helarazi dute. Idazki horretan honakoak adierazten dira besteak beste:

- Eskatzaileak dio XXXXX jauna ordezkatzeko duela.
- Eskatzaileak dio Alkatetzaren Dekretu bat jakinarazi diotela eta Dekretuak XXXXX jaunari esleitutako lizentziaren exekutagarritasuna bertan behera uzteaz gain, lizentzia lesiboa dela deklaratzeko espedientea hastea ere xedatzen duela.

Honakoen kopiak eskatzen da:

- Nekazarien tresnak gordetzeko etxola berritzeko maiatzaren 6ko lizentzia-eskabidea.
- Udalak egindako errekerimendua kokapen-planoa eta eraikuntzaren egungo egoeraren gaineko argazkiak eskatuz.



- Udal arkitektoaren aldeko txostena, eskatutako lizentzia emateko.
- XXXXX jaunari Tokiko Gobernu Batzordeak 2011ko urriaren 6ko bilerak (sic) emandako obra-lizentzia, etxola konpontzeko.

**LAUGARREN:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Hasteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontsulta egiten duen udalaren portaera datu-babesaren ikuspuntutik kalifikatu behar du.

Datu pertsonalak babesteko ikuspegitik begiratuta, udalaren portaera “*datu-lagatzetat edo datu-komunikaziotzat*” jo behar da, hau da, “*interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea*” da. DBLOren 3. artikuluko definizioak hala dela xedatzen du.

Datu-lagatzea bada, kontuan hartu behar da DBLOren 11. eta 21. artikuluek xedatutakoa, bertan baitago azalduta datu-lagatzeen eta datu-komunikazioen erregimena.

Beraz, planteatutako kasuan begien bistakoa da ezin dela bigarren artikulua horri ezarri (21. artikulua), administrazio publikoen arteko komunikazioetarako delako. Beraz, kasu honetan DBLOren 11. artikulua hartu beharko dugu kontuan.

Hona hemen manu horrek dioena, gure interesekoa baita:

*“1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”*

*2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:*

*a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”*



Kasu honetan interesekoena dela diogu, kontsulta-egileak egindako deskribapena eta Bulegoak duen informazioa ikusita ez delako aukerarik ikusten inondik inora eskatutako titularren adostasunik gabeko datu-lagatzea egiteko, DBLOren 11.2 artikuluko letretan xedatutakoak ez duelako horrelako datu-lagatzerik aurreikusten, eta babesik izatekotan a) letran aurreikusitakoa baino hartu ahal izango da kontuan.

## II

Datu-lagatzei edo datu-komunikazioei buruzko lege erregimena zertan den aztertu eta gero, eta kasu honetan ezarri aurretik, Bulegoak uste du, geroago azalduko dituen zuhurtziak kontuan hartuta, kasu honetan azpimarratu beharreko hainbat ezaugarri daudela.

Beraz, aurrekarietan esan bezala, kontuan hartzekoa da informazio-eskatzaileak dioela beste baten izenean eta ordezkaritzan ari dela. Bulegoaren iritziz, baina, informazio eskatzaileak ordezkatzeko duen pertsona ez da lizentziaren exekutagarritasuna bertan behera uzteaz gain, lizentzia lesioa dela deklaratzeko espediente hastera ere xedatzen duen 7/2011 Alkatetza-Dekretuaren lehenengo hartzailea, hau da, ez dirudi lizentziaren titularra denik.

Gainera, Bulegoak ez duenez espediente osoa ikusia, ez du ikusten informazio eskatzaileak ordezkatzeko duen pertsonaren eta lizentziaren titularraren arteko harremanik dagoenik, eta, ondorioz, ez du ikusten eskatzaileak ordezkatzeko duen pertsonaren eta eskatzen informazioaren artean edo pertsona horren eta dokumentazioan dagoen datuen titularraren artean harremanik dagoenik.

Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu XXXXX jaunak egindako eskabidean adierazitakoarekin bat, Alkatetza-Dekretua berari jakinarazi diotela (“... *jakinarazi didate*”).

Beraz, atera daitekeen ondorio bat da (eta Bulegoak ondorioa ateratzea baino ezin du egin, ezin du harantzago joan) informazio-eskatzaileari jakinarazpen egin badiote, *interesatua* delako egingo diotela jakinarazpena (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikulua xedatzen duenez, “*interesdunei jakinaraziko zaie...*”).

Horretaz gain, Bulegoak ezin du alde batera utzi, eskaera-idazkiarekin bat, eskatzaileari 10 eguneko epea eman zaiola, jakinarazpena egiten denetik hasita, berak nahi dituen alegazioak aurkezteko, eta eskaera egiteko arrazoia (xede) dela alegazioak entzunaldiaren izapidean egin ahal izatea.

Esandako guztiarekin bat, eta esandako gorabehera guztiek eskatzen duten kontu eta zuhurtziarekin, eta gorabehera horiek irizpen honetan azaldu ditugun modua ere kontuan izanda (izan ere, aurkeztu diguten dokumentaziotik ondorioztatutako gertakariak baitira, eta ez baita seguru benetan hala diren, espediente osoaren berri ez dugulako, ez dakigulako zein diren espediente sortu duten benetako arrazoiak eta ez dakigulako zein den zehatz-mehatz parte hartzaile bakoitzaren egoera), esan daiteke kasu honetan 11.2 a) artikuluan aipatzen den legea lehen aipatu dugun legea



izan daitekeela hau da, 30/1992 Legea; eta horrek emango lukeela eskatutako datuak komunikatzeko baimena.

Esan behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikulua juridikoki zehatzen duela zein den administrazio prozedura bateko interesduna. Hona hemen:

*“a) Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular modura. b) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketen eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari. c) Ebazpenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.”*

Legearen 35.a) artikulua herritarren eskubide hau ere jasotzen du:

*“... Herritarrek, prozedura batean interesatu izaera dutenean, tramitazioa zertan den edozein unetan ezagutzeko eskubidea dute eta prozedura horietako agirien kopiak lortzeko eskubidea dute.”*

30/1992 Legearekin segituz, hona hemen 37. artikuluko hirugarren idatz-zatiak xedatzen duena arxiboetan eta erregistroetan sartzeko eskubidearen gainean.

*“3. Titularrez gain, bidezko eta zuzeneko interesa agertzen dutenek ere izan dezakete irispidea zuzenbidea aplikatzeko prozeduretako agiri izendunetara, zehatzeko eta diziplinazko prozeduretakoetara izan ezik, pertsonen bizitza pribatuari buruzko daturik agertzen ez bada, eta, agiri horietako edukien arabera, herritarrek beren eskubideez baliatzeko erabil badaitezke.”*

Azkenik, 84. artikulua zera dio entzunaldiaren izapidearen gainean:

*“Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkarietara prozeduren berri emango zaie, beti ere, 37.5. artikuluan jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz.”*

Beraz, azken finean, informazioa eskatzen duen pertsona burutzen ari den prozeduran ere interesduna bada, orduan ulertu behar da espedientean agertzen diren pertsonen datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea ez dela oinarrizko eskubidearen kontrakoa, datu-komunikazio horrek DBLOren 11.2 a) artikulua babesa duelako, aipatu ditugun Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen artikuluei dagokienean.

Argi dago Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ez dagokiola esatea zein pertsonak diren administrazio publiko bateak izapidetutako administrazio prozedura batean interesdunak.

Bestalde, esandako guztiak ez du baztertzen, espedientean biltzen diren ezaugarriak ikusita, gerta daitekeela datu-komunikazio horri babesten duten beste arau sektorial batzuk egotea (hirigintzakoak edo ingurumenekoak adibidez), eta jarduneko administrazioak kontuan hartu behar du ea hala den era ea arau horiek ezargarriak diren.



## ONDORIOA

Eskatutako datu-komunikazioa zilegi izango da espedientean dauden pertsonen datu pertsonalak komunikatzeari dagokionean, baldin eta eskatzailea, eskatzailea izatea gain, prozeduran interesduna ere bada; hala xedatzen baitute DBLOren 11.2 a) artikulua eta lehen aipatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen artikuluek ere.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 17an